

# IRABAZI ITURRIAK

Proiektu bat martxan jartzeko beharrezkoa da dirua kudeatzea proiektua finantziatu ahal izateko. Hori dela eta, azken atal honetan, diru hori nondik aterako dugun azalduko dugu.

Diru-sarrerak nagusiki salmentaren bitartez jasoko ditugu, baina hasieran, jendeak gure proiektua ezagutu arte, enpresa martxan jarri ahal izateko, bakoitzak diru kantitate bat jarriko du. Modu honetara, beharrezko dirua edukiko dugu hasteko. Diru kantitate total hori 4.500€ izango litzateke, hau da, kontuan hartuta 3 partaide garela, 1.500€ bakoitzak. Honela, kostuak estaltzeko beharrezko diruaren kopuru handi bat lortuko genuke. Gainera, hainbat kutxen baldintzak irakurri ondoren, uste dugu Laboral Kutxa izango litzatekeela egokiena mailegu bat eskatzeko. Mailegu hori 6.000€-koa izango litzateke. Beraz, diru sarrera totala, 10.500€-koa izango litzateke. Hortaz, tuparren salmenten irabaziei gastu totalak kenduz, aurreikusten dugu urtean 15.792€ irabazi garbiak izango dugula.



Horrez gain, Administrazio publikoetara joko dugu (Eusko Jaurlaritza, Aldundia, udala...) gazte ekintzaileei eskaintzen dizkieten diru-laguntzak eta fiskalitate eta tributazio onura guztien berri eman diezaguten, hauek laguntzazkoak izango dira gure proiektuarentzako. Badakigu gure antzeko enpresek hainbat herri-administrazioen dirulaguntza garrantzitsuak lortu dituztela, gazte ekintzaileak izateagatik, tokiko produktuak saltzeagatik edo elikadura osasungarria sustatzeagatik, besteak beste.

Azkenik, aurretik aipatutako diru-kantitatearekin nahiko izango genuke proiektua aurrera ateratzeko, baina hala ere, UGGASArekin harremanetan jarriko ginateke, negozio-ideia edo -proiektu bat duten pertsona ekintzaileei aholkuak, informazioa eta laguntza ematen baitie eta. Pertsona ekintzaileari laguntza eskaintzen diote proiektua abian jartzeko behar diren lehen urratsetan, eta, gainera, Bideragarritasun Plana egiteko,

finantziario-iturriak eta diru-laguntzak ezagutzeko eta horiek eskuratzeko behar dena prestatzeko laguntza eskaintzen dute.